

LEHEN HEZKUNTZAKO GRADUA

2017/2018 ikasturtea

CYBERKASI: CYBERBULLYINGA LANTZEKO IKASTAROA

Egilea: Olaia Sánchez Ruiz

Zuzendaria: Urtza Garay Ruiz

Leioan, 2018ko maiatzaren 28an

A U R K I B I D E A

Sarrera.....	3
1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo egoera	4
1.1. Aurrekariak: Bullyinga edo eskola jazarpena	4
1.2. Cyberbullyinga.....	7
1.3. Lehen Hezkuntzako 3. zikloan erabiltzen diren sare sozialak	9
1.4. MOOC, hezkuntzaren etorkizuna?.....	13
2. Diagnostikoa	16
2.1. Helburua.....	16
2.2. Metodologia eta lagina.....	16
2.3. Emaitzak	17
3. Proposamen berritzailea: Cyberk@si MOOC ikastaroa.....	19
3.1. Justifikazioa	19
3.2. Helburu orokorra.....	19
3.3. Helburu zehatzak	20
3.4. Konpetentziak	20
3.5. Cyberk@si online ikastaroaren deskribapena.....	21
3.5.1. Sarrera	21
3.5.2. Edukiak.....	21
3.5.3. Metodologia	22
3.5.4. Ebaluazioa	23
4. Ondorioak	23
4.1. Ondorio orokorrak	23
4.2. Lanaren mugak	24
4.3. Etorkizuneko erronka.....	25
5. Bibliografia.....	25

ERANSKINAK

1. eranskina. Ikasleentzako galdetegia.....	29
2. eranskina. Ikastaroa.....	35

CYBERKASI: CYBERBULLYINGA LANTZEKO IKASTAROA

Olaia Sánchez Ruiz

UPV/EHU

Gaur egun, teknologiaz inguratuta gaudela esan daiteke. Hori dela eta edozein esparrutan Interneta erabiltzen da, bai ikastetxean bai aisialdian. 10-13 urte bitarteko haurrek Interneta eta sare sozialak erabiltzen dituzte eta horietan ager daitezkeen arriskuak jakin beharko lituzkete. Izan ere, lehen hain famatua zen bullyinga cyberbullyinga bihurtzen ari da eta gazte askok eraso gehiago jasotzen dute Interteten bitartez kalean baino. Lan honek Cyberbullyinga ekiditzeko proposamen berritzaile bat aurkezten du: 10-13 urtetako gaztetxoentzako eta umeentzako MOOC ikastaro bat. Ikastaro honen bitartez, ikasle eta irakasleentzat gune bat eskaintzen da, Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleekin lantzeko eta modu horren bitartez sarean modu seguru batean jokatzeko. Egiaztatuta baitago ez dakitela nola aurre egin Cyberbullying egoerei.

Cyberbullyinga, berrikuntza, eskola, Interneta, MOOC

Cabe mencionar que hoy en día la sociedad esta rodeada por la tecnología. Por este motivo, el uso de Internet ha llegado a las aulas y al tiempo de ocio. Los niños entre 10-13 años se encuentran sumergidos en las redes sociales y se debe concienciar de los peligros que pueden acarrear. De hecho, el bien famoso bullying de hace unos años se está convirtiendo en cyberbullying y muchos jóvenes reciben ataques por Internet, más que en la calle. Este trabajo presenta una propuesta innovadora para trabajar el Cyberbullying: un curso MOOC dirigido a jóvenes y niños de 10-13 años. Mediante este MOOC, se ofrece una web para los/as docentes y los/as alumnos/as de tercer ciclo de Educación Primaria, para que de este modo, puedan aprender como actuar de una forma segura en Internet. Pues se ha comprobado que muchas veces no saben cómo hacer frente a este tipo de situaciones de Cyberbullying.

Cyberbullying, innovación, escuela, Internet, MOOC

Nowadays society is surrounded by technology. For this reason, the use of Internet has reached to schools and leisure time. Children between 10-13 years of age are immersed in the social media and we have to be aware of the risks they can cause. In fact, the well-known bullying of a few years ago is becoming cyberbullying and many of young people are being attacked through Internet rather than on the street. This work presents an innovative proposal to work Cyberbullying: a MOOC course aimed at children aged 10-13 years. This Mooc offers a site for teachers and students of third cycle of Primary Education, so that they can learn how to act on the Internet in a safe way. Because, it has been proven that many times they do not know how to deal with this type of Cyberbullying situations.

Cyberbullying, innovation, school, Internet, MOOC

Sarrera

Gizartea aldatzen doa eta gizakiak berarekin batera aldatzen gara. Hasieran, erasoak, bakarrik kalean edo eskolako guneetan gertatzen zen. Erasotzeko kontaktu fisikoa besterik ez zela behar pentsatzen baitzen, horri, Bullyinga deitu zioten. Orain, ordea, bizitzen ari garen gizarte teknologiko honetan, erasoak Interneten bitartez egitera igaro da eta Bullying famatua Cyberbullyinga bihurtu da.

Erasoak ez ditu adinak kontuan hartzen eta gaur egun haurrak haien aisialdian Interneta erabiltzen dutela kontuan hartuta, arriskuan daude, eraso horrek haien garapenean eta autoestimuan eragina izan dezakeelako. Hainbat gida edo protokolo daude Bullying eta Cyberbullyingaren inguruan argibideak ematen dituztenak. Baina, webgune gutxi daude euskaraz argitaratuta Cyberbullyingaren gaia eskoletan lantzeko balio dutenak. Askotan ikasleak alde batera uzten dira eta eskubide osoa daukate zer gertatzen ari den jakiteko. Horrelako egoera batean egonez gero, nola jokatu behar duten jakin beharko lukete.

Hori dela eta, Gradu Amaierako Lan honetan proposamen berritzailetzat MOOC ikastaro bat sortzea erabaki da Cyberbullyingaren gaia landu ahal izateko. Dakigunez, ikasleei oso erakargarria egiten zaie Interneten ibiltzea eta MOOC ikastaroak hori ahalbidetzen du.

Lan honetan, lehenengoz, esparru edo marko teorikoa agertuko da Bullyingaren, Cyberbullyingaren, Sare sozialen eta MOOC ikastaroen inguruko ezaugarriak azalduz. Ondoren, MOOC ikastaroa diseinatu ahal izateko egin behar izan den diagnostikoa agertuko da. Hau da, egindako ikerketa, inkesta bat Lehen Hezkuntzako Hirugarren zikloko ikasleei. Gero, egindako proposamen berritzailea agertuko da, haren justifikazioa eta deskribapena. Amaieran, lanaren ondorio orokorrak aurkituko dira, egindako inkestaren eta webgunearen inguruko emaitzak eta usteak aipatuz.

1. Esparru teorikoa eta kontzeptuala: aurrekariak eta egungo egoera

Azken urteotan, berdinen arteko tratu txarrei (Bullyinga eta Cyberbullyinga) buruzko interesa eta kezka areagotzen joan da. Ikastetxeetan edo kaleetan beti egon dira tratu txarrak. Hala ere, aipatu beharra dago tratu txarrak jasatzeko erak aldatzen ari direla. Izan ere, betidanik ezagutu den Bullyingaz gain, Cyberbullyinga agertzen ari da. Bi kontzeptuak desberdintzeko Maite Garaigordobilek emandako definizioak konparatuko ditugu:

Bullying hace referencia a la existencia de una víctima indefensa acosada por uno o varios agresores que tienen intencionalidad de hacer daño y crueldad por hacer sufrir conscientemente. Hay una desigualdad de poder entre una víctima débil y un agresor fuerte, colocando a la víctima en una situación de indefensión. [...] la agresión supone dolor no sólo en el momento del ataque, sino de forma sostenida, ya que crea la expectativa en la víctima de ser el blanco de futuros ataques. El cyberbullying consiste en utilizar las Tecnologías de la Información y la Comunicación (TIC), principalmente Internet (correo electrónico, mensajería instantánea, páginas web, blogs, videojuegos online...) y el teléfono móvil, para hostigar y acosar a los compañeros (Garaigordobil, 2011,2013).

Agerian dago Internetek eta teknologiak pertsonak erasotzeko aukera erraztu dutela. Esan daiteke, pertsona aurrean ez izateak erraztasun gehiago ematen duela eraso nahi den pertsona hori erasotzeko, hau da, lotsak edo beldurrak eragin gutxiago dauka Interneten bitartez egiten bada, ez baitago inor begira (Castelblanco, 2016).

Beraz, gaur egun, teknologiaz eta Internetez inguratuta gaudenez, tentuz ibili beharko ginateke. Internet oso mundu zabala da eta era desberdinetako pertsonak aurkitu ditzakegu bertan.

1.1. Aurrekariak: Bullyinga edo eskola jazarpena

Bullyinga edo eskola jazarpena¹ azkenaldian gizartean eta, bereziki, hezkuntzan interesa piztu duen kontzeptua da. Ez da ikastetxe batzuei edo gizarte-talde batzuei lotuta dagoen arazoa bakarrik. Edozein esparrutan gerta daiteke, neurri handiago baten edo txikiagoan. Autore batzuek ikasle batek beste ikaskide baten aurka egiten duen jazarpen fisiko eta/edo psikologikoa duen jokaeratzat hartzen dute (Olweus, 1983; Collellek eta

¹ Nahiz eta euskararen maila zainduetan eskola jazarpena erabili, lan osoan zehar Bullying eta CyberBullying terminoak erabiliko dira.

Escudéek aipatua, 2006). Izan ere, erasotzaileak zein biktimak arazo psikologikoak izan ditzakete prozesu horretan. Arazo psikologiko hauek ez dira berdinak, erasotzaileak, erasotzera bultzatzen duen arazo psikologikoak izan ditzake (familiar arazoak, autoestimua...) eta biktimak, azkenean erasotzaileak eraso egitean sortuko dizkion arazo psikologiko desberdinak izango ditu (erasoaren ondorioz sortutako arazoak) (Olweus, 1998).

Bullying egoera guztietan eskema berdina errepikatzen da: biktima babesgabe bat dago eta erasotzaile baten edo erasotzaile-talde baten aldetik tratatu txarrak jasotzen ditu. Eraso lagunen artean gertatzen da eta gehienak jazarpen hori ikusten dute. Bestalde, ez dago biktimaren edo erasotzailearen rol finko bat, biktimak pasiboak edo probokatzaileak izan daitezke eta erasotzaileak aktiboak edo eragileak (Avilés, 2002).

Bullyingak egitura berdina izan ohi du beti, "isiltasuna eta beldurra". Eraso honen biktimak ez dira jazarpena salatzen ausartzen mendekuen edo ordainen beldurratik. Haien lagunek ere ez diete inolako laguntzarik eskaintzen, ikusle pasibo bezala egon ohi dira, biktimen taldean sartu eta erasoaren xede bihurtzeko beldurrarekin arazo horretan parte hartu edo hori bakarrik jakinaraztera ausartzen ez direnak, gehiengoak hori egin beharko lukeela sentitu arren (Avilés, 2002).

Eusko Jaurlaritzak, 2015ean idatzitako *Eskola Jazarpen Kasuetan Ikastetxeetan Jarduteko Gidan*, bullyingaren inguruko hainbat ezaugarri azaltzen ditu, adibidez:

- **Botere-desoreka/babesgabetasuna:** Lagunen elkarrekintzetan, indar-desoreka sortzen duen botere fisiko, psikologiko eta sozial desberdina sortzen da. Biktimak ez ditu bere burua defendatzeko estrategiarik eta isolamendua, estigmazioa eta autoestimua behar izaten du.
- **Intentzionalitatea:** Kontzienteko egin nahi den erasoan adierazten da, eta horrek ondorengo erasoaren xedea izateko irudikapena sortzen du biktimarengan.
- **Pertsonalizazioa.** Ikasle bat bakarrik izaten da bullyingaren biktima, eta, modu horren bitartez, ez dago babestuta.
- **Errepikapena.** Bullyinga dela egiaztatzeko, hainbatetan errepikatu behar izaten da. Erasoaren errepikapen horrek gertatzeak jazarpena dagoen edo ez dagoen erabakitze aukera ematen du.

Hau guztia kontuan hartuz, gertatzen den egoera bakoitza aztertu beharko litzateke, zein baldintzatan gertatzen den, arazoak parte hartzaileentzat dakartzan ondorioak, eta

denboraren poderioz duen bilakaera; modu horretan, era arrazoituan zehaztu ahal izango da jazarpena dagoen edo ez. Gainera, bullyingaren ezaugarriak neurri desberdinetan ematen dira egoera bakoitzean, eta, horrek ondorioztatzen du egoera batzuk beste batzuk baino larriagoak izango diren edo ez (Eusko Jaurlaritza, 2015).

Bullyingaren ezaugarriekin jarraituz, kontuan hartu behar da mota desberdinetako erasoen maiztasunak eragina duela eraso hauetan. Izan ere, ahozko eraso, ohikoena eta larritasun txikieneko izan ohi da. Hori gutxi bada ere, eraso gertatzen den lekuen artean ikasgelak eta jolastokiak aurki ditzakegu. Ikasleek irakasleak aurrean ez daudenean egin ohi dute eta normalean, mutilek gehiago parte hartzen dute eta Lehen Hezkuntzan Bigarren Hezkuntzan baino gehiagotan sortzen da. Bigarren Hezkuntzari dagokionez, lehenengo urteetan gertatzen da gehiago. Funtsean, ikasgelako ikasleak dira eraso egiten dutenak (Eusko Jaurlaritza, 2015).

Gaiaren harira, aipatu beharra dago bullyingak seinale desberdinak har ditzakeela. Eusko Jaurlaritzak (2015), honako hauek aipatzen ditu:

- **Bazterketa eta marjinazio soziala**
 - Norbaiti ez ikusiarena egitea (pasiboa).
 - Ez uztea parte hartzen (aktiboa).
 - Sexuagatik, arrazagatik, minusbaliotasunagatik eta abarregatik diskriminatzea.
- **Ahozko eraso**
 - Norbait iraintzea (zuzena).
 - Norbaiti buruz gaizki esaka aritzea (zeharkakoa).
 - Goitizenak jartzea (mistoa).
- **Zeharkako eraso fisikoa**
 - Norbaiti gauzak ezkutatzea.
 - Norbaiti gauzak puskatzea.
 - Norbaiti gauzak lapurtzea.
- **Eraso fisiko zuzena**
 - Norbait jotzea.
- **Mehatxua**
 - Norbait mehatxatzea beldurrarazteko.

- Gauzak egitera behartzea.
- **Cyberbullyinga:** norbait mehatxatzeko, iraintzeko edo iseka egiteko, sakelako telefonoen, e-mailaren, sare sozialen eta abarren bidez mezuak bidaltzea. Telefonoarekin grabazioak egitea egoeria iraingarrietan, gero kideei bidaltzeko edo Interneten esekitzeko. Biktimaren ezaugarrien arabera, cyberbullying mota desberdinak egon daitezke: arrazista, homofobia, sexista, ahalmen-urritasuna duen ikasle bati zuzendutakoa, eta abar. (Eusko Jaurlaritza, 2015)

1.2. Cyberbullyinga

Bullyingaren antzeko jazarpena da Cyberbullyinga, teknologia berriak erabiltzen dituen eraso mota bat da gehienetan Interneten bitartez egiten dena. Gizarteak aurrera egiten duen heinean komunikatzeko moduak aldatzen joaten dira eta Interneten bitartez anonimatoa gordetzen denez, jendeak Interneten bitartez erasotzera jotzen du. Kowalskyk, Lymberek eta Agatsonek (2012) ondo desberdintzen dituzte bi kontzeptuak, haien iritziz bullyingak:

Bullying creates memories that often last a lifetime. Simply hearing the name of a person who bullied them, even years or decades after the bullying occurred, may be enough to send chills up the backs of many people. When most adults think of bullying, they conjure up the image of a big thug who terrorized kids on the playground at school. Usually a male, he was someone to be feared. As horrible as encounters with this bully may have been, though, the end of the school day often brought a reprieve as the victim left school and went home (Kowalsky, Limber, Agatson, 2012: 1)

Beraz, esan daiteke Bullyinga ez dela mende honetako kontu bat, beti egon dela eta Internetek kontzeptu hau aldatzea eragin du, izan ere:

Cyberbullying, however, is a bit different. In spite of recent media attention devoted to the topic, many people are still not familiar with the term. But, for those who are and who have experienced it, the memories, like those of traditional bullying, may also last a lifetime. Cyberbullying, also known as electronic bullying or online social cruelty, is defined as bullying through e-mail, instant messaging (IM), in a chat room, on a Web site, on an online gaming site, or through digital messages or images sent to a cellular phone. (Kowalsky, Limber, Agatson, 2012: 2)

Esandakoa kontuan hartuta, eraso edo jazarpena beti egongo da eta gazteak mundu digital batean jaio direnez, egoera hau bizitzea egokitu zaie. Castelblancoren (2016) esanetan, Cyberbullyinga jasotzen duten pertsonen artean, gehiengoak sufrimendu handiagoa izaten du bide honen bitartez eraso jasotzen duenean eta gehiago irauten du sufrimendu horrek. Hori dela eta, eragin psikologikoak larriagoak izan daitezke. Estutasuna, grina eta preso sentitzearen egoera horrek, sentimendu suntsitzaileak izatera

ahalbidetzen du. Castelblancoren (2016) ustetan, ikastetxean gertatutakoa etxera heltzerakoan ahazten da. Sarean, ordea, ez da hori gertatzen, gertatutakoa zabaldu daiteke eskola ingurunean, bere etxean eta bere buruan mantenduz (Chaux, 2012; Castelblancok aipatua, 2016:32).

Sarean aurkitu ditzakegun Cyberbullying motak sailkatzerako orduan, Floresek (2008; Garaigordobilek aipatua, 2011) hainbat mota aurkezten dizkigu:

- Interneten irudi iraingarriak jarri (errealak edo fotomuntaketa bitartez egindakoa), datu delikatuak, biktima lotsatu edo kalte egin diezaioketen kontuak, gero ezaguna egiteko.
- Interneteko pertsonarik itsusia botoen bitartez aukeratzen duen Web orrialde batean izena eman, biktimaren argazkia jarri eta bozkatu bere argazkia lehenengoetarikoa agertzeko.
- Identitatea lapurtu. Profil faltsu bat sortu biktimaren izenarekin eta iruzkin pribatu edo iraingarriak idatzi.
- Ordezkatu. Foro batean biktimaren izenean iruzkin iraingarriak idatzi. Ondoren, lagunak biktimaren aurka joateko.
- Biktimaren mezu elektronikoa erabili Web orrialde batzuetan izena emateko. Ondoren, spam-en biktima izateko, iraintzeko, mehatxatzeko edo balioa kentzeko helburuarekin.
- Mezu elektronikoaren pasahitza hartu eta aldatu biktimak horra ez sartzeko eta bere intimitatea urratzeko bere mezuak irakurriz...
- Biktima haserre arazi txat edo web zerbitzuetan. Horrela, erasotzaileak biktimak esandakoa (aurre egiteko esan dituen esaldiak, irainak...) gordeko du eta besteei erakutsi egingo die biktima baztertzeko eta bakarrik egoteko.
- Esamesak, zurrumurruak asmatu biktimaren ospea kaltetzeko eta bere lagunak erasotzen hasteko, baztertzeko edo bakarrik uzteko.
- SMS edo mezu elektronikoak bidali, biktimaren segika ibili eta Interneten zelatatu, sare sozialetan irainak jarri, erasotzaileak biktimari bizitza jasanezina egiteko eta nekea edo akidura izateko.

Mota horiek aztertu eta gero, Castelblancok (2016) esandakoa gogoratu beharko genuke. Haren ustez, ez dugu ahaztu behar Cyberbullyingaren eragina erabiltzen diren

baliabideen edo komunikabideen arabera dela. Izan ere, baliabide guztiek ez dute eragin berdina biktiman. Izaeraren arabera, mezu elektronikoen bitartez jasotzen diren irainak gogorrakoak iruditu ahal zaizkio bati eta beste bati, ordea, sare sozialetan jasotzen dituenak.

1.3. Lehen Hezkuntzako 3. zikloan erabiltzen diren sare sozialak

Sare sozialak giza talde batek osatzen duen zirkulu sozial eta kultural bat dela esan genezake, non ezagupenak partekatzen dituzten testuinguru digital batean. Komunikabideek lagundu dute informazio inter pertsonalaren erakusketa edo partekatze hori egiten. Mendozaren esanetan (2012), gazteen % 55² komunikazio mota hau egunero erabiltzen dute eta 9-10 urte bitarteko ikasleen % 23k sakelako telefonoa eta Webcam-a dute. Gurasoei galdetu zitzaion ea bazekiten zer egiten zuten haien seme-alabek Interneten. Datuak datu, % 16ak bakarrik erantzun zuen baietz, haien seme-alabek beti esaten dietela zer egiten duten Interneten. Mendozaren (2012) ikerketa kontuan hartuta, % 84ak ez daki zertan dabilen haren seme-alaba Interneten eta zehazki sare sozialak erabiltzen dituenean. Gauzak horrela, seme-alaba askok haien identitatearen inguruan gezurra esaten dutela frogatu du. Datuak kontuak hartuta, gazteen % 39k haien identitatea ordeztzen du sare sozialetan eta % 52k adinean iruzur egiten dute nagusia dela adieraziz.

Baina, arriskutsua al da Interneten ibiltzea? Mendozak (2012) dioenez, gazteen % 60 ezezagunen mezuak jaso dituela ziurtatu du eta % 50k mezuak partekatu dituela adierazi du. Internetek adierazteko eta hitz egiteko aukera ematen du, baina ziberjazarpena jasateko arriskua dago. Horien artean, % 37k iruzkin iraingarriak jaso dituela adierazi du; % 4ak sarritan gertatzen zaiola eta % 9ak kezkatuta dago jasotzen dituen mehatxuengaitik.

Ez da ahaztu behar sare sozialetan, argazki pertsonalak partekatzen dituztela eta gehienetan izen eta datu pertsonalak publikoak izaten dituztela (Mendoza, 2012). Hauek egoera batzuetarako tresna onak izan arren, arriskutsuak izan daitezke. Askotan, harrapatzaileak aurkitu daitezkeelako (Mendoza, 2012: 135).

Printzipioz, ikastetxeek Internet eta ordenagailuen erabilera onartzen dute ikasketa prozesurako bada. Mendozak (2012) zehaztu duenez:

² Datu hauek Enrique Mendoza Lopez-ek Estatu Batuetan, Mexiko eta Kanadan aztertutako ikerketa batean oinarrituta daude. Mexikoko pediatriari buruzko aldizkari batean argitaratutakoa.

En principio, la escuela permite, como parte del sistema de enseñanza, el uso de computadoras y el uso de Internet, que bajo restricciones y vigilancia por parte de los maestros está limitado a actividades meramente académicas. Sin embargo, los jóvenes usan su teléfono móvil para enviarse mensajes de texto, fotografías, notas y hasta respuestas de exámenes aun bajo supervisión de los maestros; por lo tanto, llega a ser realmente complicado tener un control escolar estricto de todos los instrumentos electrónicos y de sus consecuencias, los que pueden ser usados para molestar a otros compañeros de escuela (Mendoza, 2012:136).

Adituak esandakoa kontuan hartuta, oso zaila izan daiteke eskolan erabiltzen diren aparailu elektroniko guztien eta horien ondorioen kontrola izatea. Ikasketetarako erabiltzen badira ere, batzuetan ikaskideak zirikatzeke erabiltzen baitituzte. Baina, haien erabilera arlo batzuetara murriztuz eraso saihestu daiteke (Mendoza, 2012). Hala ere, ikastetxean ez bada, Lehen Hezkuntzako hurrek plataforma edo aplikazio asko erabiltzen dituzte sare sozialetan hartu ditzakegunak. Gradu Amaierako Lan honetan egindako inkestan (ikus 1.eranskina), ikasleek honako hauek zehaztu dituzte:

1.3.1. Twitter

Sare sozial mota hau mikroblogintza zerbitzutat har dezakegu eta honetan gazteek partekatzen duten informazioa ugaria da. Iritziak (Tweet deiturikoak), argazkiak, nonahi aurki daitezke eta harrapakariak aurkitzea oso ohikoa da. Twitterrek duen xarma haren mezuak sintetizatzeke beharra da. Izan ere, bakarrik 280 karakteretako mezuak onartzen ditu. Twittera 2006tik dago edonorren eskura (Pérez eta Gardey, 2014).

1.3.2. Facebook

Mark Zuckerbergekin sortutako sare soziala da. Harvard Unibertsitateko ikaslea zela sortu zuen. Bertan, argazkiak, nonahi aurki daitezke eta irainak jasotzeke arriskua dago. Facebooka 2004tik dago edonorren eskura. Oso erabilia izan ohi da eta haren erabiltzaileen kopurua asko handitu da azken urteotan (Aguar, 2018).

1.3.3. Instagram

Lehen Hezkuntzako hurrek erabiltzen duten beste plataforma bat daukagu Instagram. Facebook-en antzera, argazkiak eta bideoak partekatzeke aukera ematen du. Plataforma, 2010 sortu zen eta 2012an Facebookek erosi zuen. Nahiz eta erabiltzaile gazteagoak izan, 12 urteko adin sailkapena dauka zehaztuta (Rodríguez, 2012).

1.3.4. Youtube

Web orrialde bat da non, erabiltzaileak bideoak igo eta partekatu ahal dituzten. 2005ean sortu zuten Chad Hurley, Steve Chen eta Jawed Karimek. Urte bat geroago, Google enpresak erosi zuen. Bere edukiak nahiko anitzak dira eta edozein motatako bideoak aurki daitezke. Pelikuletatik, telebista saioetara edota musika bideoetara. Gaur egun, asko erabiltzen den sarea da. Youtuberak sortu zirenetik bisita asko jasotzen dituen plataforma dela esan genezake (Pérez eta Merino, 2010).

1.3.5. Musical.ly

Asko erabiltzen den beste sare sozial bat Musical.ly deiturikoa da. Berez, sakelako telefonoen aplikazio bat da, ez baitago aukerarik ordenagailuaren bitartez hori erabiltzeko. Antza, bideo laburrak grabatzean datza. Horietan, abesti batzuen playback-a egin daiteke eta dantzatu, edo modaren inguruan hitz egin, komediazko bideoak egin, Vlogak eta abar. 2014 sortu zen Txinan eta nahiz eta 13 urte beherakoentzat debekatuta egon, 10-16 urte bitarteko gazteetan arrakasta handia dauka (Pascual, 2017).

1.3.6. Hangouts

Google, Inc. enpresak diseinatutako mezularitza aplikazioa da. 2013an aurkeztu zen Googleek egindako ekitaldi batean. Bideokonferentziak egiteko aukera ematen duen aplikazioa da. Askotan, Youtuberek plataforma hori erabiltzen dute haien jarraitzaileekin hitz egiteko eta kontaktua mantentzeko. Hori dela eta oso ezaguna da Lehen Hezkuntzako ikasleen artean. Bideoetan galderak eta proposamenak egin daitezke eta beste erabiltzaile batzuekin elkarreragina izan (Nieto, 2014).

1.3.7. Whatsapp

2009an sortutako mezularitzarako aplikazioa da. Jan Koum ukrainiarriak sortu zuen eta 2014 urtean Facebookeko Marck Zuckerbergekek erosi zuen. SMS edo mezuak bidaltzeaz gain, argazkiak, bideoak, dokumentuak, ahots-mezuak eta irudi animatuak (GIFak) partekatu daitezke. Nahiz eta hasieran sakelako telefonoetan bakarrik eskuragarri egon, gaur egun Whatsapp Web deritzona sortu dute, horra sartzeko QR kodigo bat eskaneatzea besterik ez da egin behar. Gutxieneko adina 12 urtetara jeitsi dute gaur egun (Pérez eta Gardey, 2015).

1.3.8. Snapchat

2011n Evan Spiegel, Bobby Murphy eta Reggie Brownek sortu zuten unibertsitateko ikasleak zirela. Aplikazio horrek argazkiak eta bideoak kontaktuei bidaltzeko aukera

ematen du. Bideo eta argazki hauetan testuak eta marrazkiak gehitu daitezke eta erabiltzaileak zenbat denboran egongo diren eskuragai zehazteko aukera dauka. (De La Pava, 2016) Publikazioei “Snaps” esaten zaie. Sakelako telefonoan erabil daiteke bakarrik eta 12 urtetik gorakoentzat eginda dago. Hala ere, asko erabiltzen dute LHko hirugarren zikloko ikasleek.

1.3.9. Ask.fm

Letonian, 2010ean sortutako web orrialdea da. Erabiltzaile bati galdera anonimoak egitean eta erantzutean datza. Horretarako, web orrialdean izena eman behar da. Web orrialde hau arriskutsua izan daiteke haurrentzat, bertatik pertsona anonimoen irainak jaso baititzakete eta Cyberbullying kasuak eman. Hala ere, Lehen Hezkuntzako haurrek asko erabiltzen duten sarea da (Sarle, 2013).

1.3.10. Telegram

Telefonoaren bidez mezuak, argazkiak eta bideoak bidaltzeko aplikazioa da, Whatsapp-en oso antzekoa da, izan ere, berarekin eta antzekoak diren beste aplikazioekin lehiatzeko sortu zuten. 2013an sortu zuten Nikolai Durov eta Pavel Durov Errusiarrek. Ordenagailuan zein telefonoan erabiltzeko aukera dago eta ez da telefono zenbakia zertan jarri. Adituen arabera, Whatsapp baino seguruagoa da (Ramírez, 2016).

1.3.11. MadLipz

Plataforma horrek, noizbait ikusitako pelikulen zatiak edo clip-ak bikoizteko aukera ematen du. Aisialdian, dena era umoretsuan edo parodia egin ahal izateko. Telefono eta Tabletetan bakarrik dago eskuragai eta gaur egun arrakasta handia hartzen ari den erreminta da. Bideo bakoitza hamabost segundu irauten du, horretan datza aplikazioaren sinpletasuna eta arrakasta (García, 2017). 2015ean sortu zuen Eigenuityk Kanadako Film Elkarteak.

1.3.12. Tumblr

Twitter-en antzera, mikroblogging zerbitzu bat da non testuak, argazkiak, bideoak, loturak, aipuak eta audioak partekatzen diren. David Karpek sortu zuen 2007an eta haren enpresa New York-en dago Yahoorekin batera, haren parte baita. Tumblr-aren egitura jatorrizko blogen antzekoa da nahiz eta sare sozial bezala sailkatu. Oso ohikoa da mugitzen diren irudiak partekatzea (GIFak) eta diseinu ugari eskaintzen ditu

erabiltzaileen orrialdeak zeharo desberdinak izateko. Gainera, web orrialdea izateaz gain, Tablet eta Sakelako telefonoetan eskuragai dago (Escudero, 2016).

1.3.13. Skype

Interneten bitartez deiak egitea ahalbidetzen duen plataforma da. 2003an sortu zen Estonian, Ahti Heinla, Priit Kasesalu eta Jaan Tallinnen ideia izan zen. Aplikazioak eskaintzen dituen aukeren artean, doako deiak egitea eta ahots-mezuak bidaltzea da. 2005ean eBay enpresak erosi zuen (Arnau, 2009). Edozein tresnatan eskuragai dago (Telefono, Tablet, zein ordenagailuan).

1.3.14. Pinterest

Irudiak, infografiak eta bideoak partekatzeko sare soziala da. Hala ere, erabiltzaile askok ideien katalogo bezala erabiltzen dute. Izan ere, sare honen egiturak argazki albumak gaien eta interesen arabera sailkatzeko, gordetzeko eta partekatzeko aukera eskaintzen du. Kortxo baten irudiak txertatu daitezken bezala, bertan “pin” antzekoak erabiltzen dira eta argazkiak partekatzeko era Instagramaren oso antzekoa da (Matesa, 2018).

1.3.1. Reddit

Gizarte markatzailea den eta berriak gehitzeko balio duen web orrialdea da. 2005ean sortu zuten Steve Huffman eta Alexis Ohanianek. 2006an “Conde Nast” argitaletxeak hartu zuen eta 2008an irekia izatera pasatu zen. Foro askoren antzera, Redditek gai asko batzen ditu eta gai bakoitzak bere atalak ditu “subreddit” deiturikoak. Lehenengo aldiz sartzerakoan, berri edo publikazio esanguratsuenak agertzen dira eta erabiltzaileek zehaztutako botoen arabera ordenatzen dira. Berri edo publikazio hauek argazkiak, estekak, bideoak edo “memeak³” izan ditzakete. Behin Web orrialdean izena emanda, publikazioak harpidetutako gaien (subredditak) arabera izango dira (Muñoz, 2016).

1.4. MOOC, hezkuntzaren etorkizuna?

MOOC⁴, bere siglak ingelesez duten esanahia itzulita, berez, online zuzentzen diren ikastaro masiboak direla esan daiteke. MOOCaren definizioa hainbat esparrutan aurkitu daiteke, hala ere, zenbait adituk MOOCaren definizio zuzena eman beharrean haren

³ Memea umorezko mezu simple bati esan ohi zaio.

⁴ MOOC: Massive Open Online Course.

ezaugarriak aipatzen dituzte. *Bartzelonako Unibertsitate Autonomoak* (UAB), Cormieren (2010) esanetan, honako definizio hau ematen du:

Un curso en línea abierta masiva (MOOC) es un curso en línea destinado a la participación ilimitada y acceso abierto a través de la web. Además de los materiales de un curso tradicional, como son los vídeos, lecturas y cuestionarios, los MOOC proporcionan forums de usuarios interactivos que ayudan a construir una comunidad para los estudiantes, profesores y los teaching assistants. (Cormier, 2010; UAB aipatua, 2018)

MOOCek aukera ezin hobea eskaintzen dute pertsonen ezagupen maila hobetzeko, modu horren bitartez haien formakuntza areagotzen da. Horrela begiratuta, MOOC ikastaroak ez dira orain dela urte asko existitzen diren online ikastaro tradizionalen arras desberdinak. Berez, online ikastaro tradizionalen antzera, MOOCak gaia edo programa bat dauka; material batzuk, normalean bideoen bitartez egiten direnak, baina, irakurketak ere ager daitezke; jarduera batzuk, modu desberdin batzuek ebaluatu daitezkeenak (autoebaluazioa, ebaluazio automatikoa, bien arteko ebaluazioa); test moduko ariketa batzuk ikasketa prozesua ebaluatzeko; eta foroa irakaslearekin eta gainontzeko ikaskideekin eztabaidatzeko. Alabaina, azterketa sakon bat egitean, ikasle batek hartzen duen jarrera MOOCarekiko, beste ikastaro tradizional batekin har dezakeena baino askoz desberdina dela ikus daiteke; horrez gain, ikastaro batean aldi berean mila ikasle desberdin aurkitzeak suposatzen duen izaera masibo horrek desberdintasun oso kualitatiboa (eta argi dago, kuantitatiboa) sortzen du online ikastaro tradizionalekin alderatzean. Izaera masiboak ez dauka zerikusirik masibo=masifikazio gutxiespen-zentzu horrekin: izaera masibo horrek dinamika desberdinak agertzea baimentzen du, izan ere ikastaro tradizional batek ez du aukera hori ematen. MOOC batean jarduera desberdinak egin daitezke ikasleen kopurua lar handia denean (Pernías, 2018).

Perníasek (2018) adierazi duenez, ez dago termino finkorik MOOC ikastaroak adierazteko, izan ere:

No existe un término ampliamente aceptado para referirse a este tipo de cursos. Algunos de los términos que se utilizan en la actualidad son CAEM (Curso Abierto En línea Masivo), COMA (Curso Online Masivo y Abierto) o CALGE (Curso Abierto en Línea a Gran Escala). De igual forma, tampoco está completamente claro cuándo un curso es o no es un curso MOOC, pero hay una serie de características mínimas que se suelen exigir para que un curso se considere de tipo MOOC (Pernías, 2018).

Perníasek (2018) aipatzen dituen ezaugarri horiek masiboa (Masive), irekia (Open), eskuragai (Online) eta ikastaroa (Course) izango lirateke:

Masiboa: MOOC ikastaro batek ikasle kopuru handi bat onartu behar du, eskola presentzial batek edo online ikastaro tradizional batek baino gehiago. Gainera, ikastaroa prest egon behar da ikasleen kopuruan aldaketak onartu ahal izateko, kopuru handienetan, esate baterako, 1.000tik 100.000 ikasle izatera pasatzerakoan. Horrek ez du arazorik sortu behar izango bere funtzionamenduan (Pernías, 2018).

Irekia: irekia hitzak hainbat esanahi ditu. Hasiera batean, bi esanahi zituen. Lehenengoa, ikastaroa mundu osora irekia (unibertsitate edo ikastetxe horrek antolatzen duen ikasleentzat irekia egoteaz gain, munduko gainontzeko ikasleentzat irekia egotea) egon behar dela esan nahi du, eta ez da aurreko formakuntza espezifikorik behar, izen emate irekia izan behar du. MOOCek berezitasun bat daukate, ikaslearen jarraipen bat egiten da, ikasleak nola egiten duen ikastaroa eta zein emaitzak lortzen dituen ikus daiteke eta. Bigarrena, “irekia” ikastaroak “eduki irekiak” erabiltzen dituela esan nahi du eta ikastaroak sortzen zituen berezko edukiak irekian argitaratu (open license) behar direla beste erabiltzaile batzuk erabili ahal izateko. “Ireki” kontzeptu horrek ikastaroan eskaintzen den materiala eskuragai, erabilgarri eta berriro erabiltzeko eta egokitzeko moduan egon behar dela esan nahi du. Bestela, izaera ireki hori murriztuta egongo da eta ezin izango litzateke berriro erabili. “Irekia” egonda ikastaroaren atalak webguneetan, wikietan, multimedia biltegietan edo blogetan sakabanatuta aurki daitezke. Horrek bere sarbidea eta etorkizuneko erabiltzaileen berrerabilera errazten du (Pernías, 2018).

Eskuragai (Online): ikastaroa Interneten bitartez egiten da urrutitik, urrutiko unibertsitateak bezala eta ez da ikasgela batean presentzialki egon behar. Ezaugarri hori oso garrantzitsua da munduko edozein erabiltzaileek Internet konexioaren bitartez parte hartu ahal izateko eta bide batez “Online” ezaugarri hori betetzeko. MOOC ikastaroen Online irakaskuntzak harago doa, 2000 urtetik aurrera Interneten egin diren aurrerapenei esker erabiltzaileak sarean aurkitzen den edozein baliabideren erabileraren oinarritzko protagonistak izan daitezke ikusi da. Hori dela eta, gaur egun Interneta fenomeno teknologiko bat izatetik giza fenomeno edo fenomeno soziala izatera pasatu dela esan daiteke (Pernías, 2018).

Ikastaroa: MOOC ikastaro batek oinarri eta helburu espezifikoak izan behar ditu eduki zehatzen sekuentzia didaktiko bat osatzeko, hau da (Pernías, 2018):

- Helburu batzuk izan behar ditu ikasleak lortu beharrekoak, zehazten diren e-jarduerak denbora zehatz batean egin eta gero (hasiera bat eta bukaera izan behar du).
- Gainera, ebaluazioa egin behar da. Lortutako ezagupenak neurtu eta bermatu behar dira.
- Eta irakasle-ikasleen arteko harremana edo elkarreragina egon behar da ahal diren zentzu guztietan (ikasle-ikasle, irakasle-irakasle), nahiz eta harreman mota hau teknologia edo Interneten bitartez eman.

Oraingoz, MOOC ikastaroak esperimentutzat ulertu beharko lirateke, esperimentu bat irakaskuntza eta ikasketa metodo desberdinak baloratzeko eta aurkitzeko balio duena. Baina, ikastaro hauek sortu duten interesagaitik, askok hezkuntzaren etorkizuna direla ondorioztatu dute. Perníasen (2018) ustetan, MOOC ikastaroak ez dira “hezkuntzaren helmuga” bezala hartu behar ezta hezkuntzaren etorkizuna izango balira bezala ere. Aitzakia bat bezala hartu behar dira, aitzakia bat hitz egiteko, gogoeta egiteko, hausnartzeko eta hezkuntzan ikertzeko. MOOCak bidaia dira ez, bidaiaren amaiera. Esperimentu baten emaitzak positiboak edo negatiboak izan daitezke, baina, edozein kasutan, azkenean lortutako emaitza balio handikoa da.

2. Diagnostikoa

2.1. Helburua

Cyberbullyingaren eragina ikertzea: teoriak esandakoa errealitatearekin konparatzeko eta alderatzeko, amaieran ondorio batzuetara heltzeko.

2.2. Metodologia eta lagina

Datuak bildu ahal izateko, Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailako ikasleei bideratutako 21 itemeko galdetegi bat erabili da, inkesta moduan erabilia. Galdetegia, Ortega, Calamaestra eta Mora-Merchanek (2007) eta Castelblanco, Sánchez eta Ruiz (2016) diseinatutako inkesta-eredutan oinarrituta egon da. Hala ere, galdera batzuk moldatu dira, galdetegia Cyberbullyingaren gaiari osotasunean egokitu ahal izateko.

Horretan, oro har, Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko ikasleek Cyberbullyingaren inguruan duten pertzeptzioa, iritzia eta ezagupen maila aztertzen da. Gaur egungo gizarte

teknologiko honetan, Lehen Hezkuntza arazoak hasten diren frogatzeko. Aipatu baharra dago gehitutako azken galdera, ikasleek ateratzen dituzten emaitza akademikoei zein ikasketei buruzkoa izan dela. Hori galdetzearen helburua, Cyberbullyingak zer nolako eragina izan lezakeen erasotzailearengan eta biktiman frogatzeko eta konpatatzeko egin da.

Ikerketa, berez, Bizkaiko Nerbioi Garaiako eskualdean dauden herri eta hiri batzuetan egin da. Arestian aipatu denez, Lehen Hezkuntzako bosgarren eta seigarren mailan dauden ikasleei. Guztira 101 ikaslek hartu dute parte, 49 ikasle bosgarren mailakoak eta 52 ikasle seigarren mailakoak. Lagina kontuan hartuta, 101 ikasleetatik, % 56 neska da, % 44 aldiz, mutila. Adinari erreparatuz, 10-13 urte bitartekoak izan dira, eta haien batezbestekoa 10,9 urte.

2.3. Emaitzak

Lehenengo lau galderak Interneten erabilerari buruzkoak dira eta bosgarrenetik aurrera cyberbullyingaren ingurukoak. Lehenengo galderari dagokionez (“Sakelako telefonorik ba al daukazu?”), % 63k badaukala esan du, % 30ak ez duela eta gainontzeko % 7ak gurasoena erabiltzen duela adierazi du.

Bigarrenari erreparatuz (“Non daukazue ordenagailua zuen etxean?”), % 97ak badauka etxean eta horietatik, % 30ak haien logelan, % 41 egongelan eta % 26 beste leku batean. Ordenagailua ez daukatenek (% 3k), tablet edo antzekoak erabiltzen dituztela adierazi dute. Hirugarren itemean (“Badaukazue Interneta etxean?”), % 98ak etxean Internetera sartzeko aukera dauka eta % 2ak ez. Laugarrenean (“Etzetik kanpo Internetera sartzeko aukera daukazu?”), % 68ak badaukala adierazi du baina, horietatik bik ez dute erabiltzen. % 22ak ez dauka, eta gainontzeko % 10ak WiFi konexioa bilatzen du (tabernetan, liburutegian...).

Cyberbullyingaren galderei erreparatuz, bosgarrenean (“Zenbat alditan iraindu zaituzte edo jazarpena jaso duzu telefonotik?”), % 86ak ez duela eraso jasan esan du, % 13ak baten edo bitan, eta % 1ek astean behin. Seigarrenean (“Nor bait irain duzu telefonoaren bitartez?”), % 93ak ez duela inoiz eraso egin telefonotik adierazi du, % 6ak baten edo bitan eta % 1ak bromeetan zela ziurtatu du eta biktimak bazekiela txantxa zela. Zazpigarren galderan (“Cyberbullyinga bullyingarekin (nor bait iraintzea interneta erabili gabe) alderatuz, pentsatzen duzu...”), % 72,4ak eragin berdina duela biktiman uste du, % 16,3ak eragin gehiago duela biktiman eta % 11,2k eragin gutxiago duela.

Zortzigarrenean (“Nola sentitzen zara beste pertsona batek zu iraintzen zaituenean telefonoaren bitartez?”), % 81 ak ez zaiola inoiz gertatu adierazi du. Beste % 19en artean, % 13 gaizki sentitzen da, % 11 triste, % 5 babesgabe, % 4 bakarrik, % 13 haserre, % 7 ez du ezer sentitzen eta % 10 besteek pentsatu edo esango dutenaren beldur da. Bederatzigarrenean (“Nola uste duzu sentitzen dela beste pertsona zuk iraintzen duzunean telefonoaren bitartez?”), % 87,9ak ez duela inor erasotzen esan du. Baina, gainontzeko % 12,1en artean, % 8,1ak biktima gaizki sentitzen dela uste du, % 13,1 triste, % 5,1 babesgabe, % 3 bakarrik, % 8,1 haserre, % 7 ez duela ezer sentitzen eta % 2ak pentsatuko edo esango dutenaren beldur dela. Hamargarrenean (“Zein ikasgelatan dago/daude telefonoaren bitartez zu iraintzen zaituzten pertsonak?”), % 80,6k ez duela inoren partez eraso jasotzen klasean adierazi du, % 12,2k bere klasekoengandik jasotzen duela esan du, % 3,1k bere mailako beste klasekoak direla, % 3,1k ezagutzen dituela baina ez direla haren ikastetxeak eta % 2k ez dakiela norengandik jasotzen duen eraso. Hamaikagarrenean (“Nork iraintzen zaitu telefonoaren bitartez?”), % 82k ez dagoela inor ziurtatu du, % 6k neska bat dela, % 4k neska talde bat, beste % 4k mutil bat dela, % 3k neska-mutil talde bat eta % 1k ez dakiela. Kuriosoa izan da zeren, nahiz eta “mutil talde bat” atala aukeran egon ez du inork aukeratu.

Hamabigarrenean (“Zenbat denbora iraun du telefonotik zu iraintzearena?”), % 83,5k jarraitu du esaten ez duela erasorik jaso, % 9,3k aste bat edo gutxiago izan dela, % 5,2k bi edo hiru aste eta % 2k urte bat baino gehiago. Hamahirugarrenean (“Zer egin duzu norbaitek zu iraindu zaituenean telefonoaren bitartez?”), % 81i ez zaio horrelakorik gertatu. Gainontzeko % 20ren artean, % 4 negarrez hasi da, % 1 telefonoa itzali du, % 5 ez ikusiarena egin du, % 6 gelditzeko esan dio bide berdinetik, % 2 lagunei esan die, % 8 gurasoei eta % 4 berari egin dioten berdina egin nahi izan dio. Inork ez du aukeratu “irakasleari esan diot” aukera. Hamalagarrenean (“Nola iraintzen zaituzte telefonoaren bitartez?”), % 81,8k ez duela erasorik jaso esan eta gero, % 10,1k Whatsapp-etik izan dela adierazi du, % 5,1 dei eginez eta % 3ak hainbat sare sozial aipatu ditu (Instagram-en “This crush” kontua, grabazioak, Snapchat).

Hamabostgarrenean (“Ba al dago beste bideren bat interneten bitartez pertsonak iraintzeko ez dena aipatu?”), “Musical.ly, Telegram, Facebook, Twitter, HangOuts, Skype, Youtube, Redit, Instagram” eta antzekoak diren sare sozialak aipatu dituzte. Hamaseigarrenean (“Zerbait gehitu nahi zenezake? Iruzkin, iradokizun, istoriorik?”), hainbat iruzkin idatzi dituzte, hala nola, “erasotzen dutenak ikasle txarrak dira”, “gurasoei

bakarrik kontatu”, “nire lagun batek argazkietan irainak jaso zituen”, “perfil faltsu asko daude”, “ziur nago nitaz nekatzen denean beste bati egingo diola berdina”, “this crush-en iraindu ninduten eta ez dut berriro jarri”, “pertsonak daude beste pertsoneri engainatzen”, “errazena guztia ahaztea da”, “hitza ematen dut ez dudala inor irainduko”, horrez gain, neskatala batzuen izenak idatzi dituzte, haien partetik erasoren bat jaso dutenak, orobat. Azken galderan (“Bukatzeko, ikasketetan nola zoazen esan zenezake?”), % 63k nota onak ateratzen dituela zehaztu du, % 20k guztia gainditzen doala, % 15k gehienak gainditzen dituela, baina baten bat ez eta % 2k ia guztietan edo guztietan huts egiten duela.

3. Proposamen berritzailea: Cyberk@si MOOC ikastaroa

Diagnostikoa burutu ondoren, eta ikasleen Cyberbullyingaren inguruko ezagupena aztertuta, egoera horri erantzun bat emateko asmoz online den ikastaro bat sortzea erabaki da. Ikasleek egoera hauetan nola jokatu beharko luketen azalduz eta jarduera desberdinak proposatuz.

3.1. Justifikazioa

Lehen Hezkuntzako ikasleek Cyberbullyingaren inguruan dakitena ikertu eta gero, frogatu egin da ehuneko batek ez dituela ondo desberdintzen Bullying eta Cyberbullying kontzeptuak. Gainera, ez dute kontrolatzen zer-nolako informazioa uzten duten agerian Interneten, eta gehiengoek arazoak izaten dituzte Cyberbullying egoerei aurre egiteko.

Hori dela eta, sortu da ikastaro hau. Ikasleak prestatzeko eta Cyberbullyinga ekiditzeko gune bat beharrezkoa dela pentsatu delako. Ikasleei plataforma erakargarria eta interesgarria eskaintzea izan da helburua. MOOC ikastaroek Online lan egiteko aukera eskaintzen dute eta gaur egungo ikasleak, Interneten ia denbora igarotzen dutenez, Cyberbullyingaren gaia lantzeko oso aukera ona dela ondorioztatu da.

3.2. Helburu orokorra

MOOC ikastaro honen helburu orokorra internetaren eta erasoaren inguruko pentsamendu kritikoa garatzea da, kontzeptu hauek landuz: sare sozialak, aztarna digitala, pribatutasuna eta cyberbullyinga. Modu horren bitartez, Informazio eta Komunikazio Teknologien erabilera arduratsua sustatuko da. Gainera, ikastaroa irekia dagoenez, edozein zentru edo ikastetxeek erabil dezake.

3.3. Helburu zehatzak

MOOC ikastaro honek, helburu orokor bat izateaz gain, helburu zehatzak ere baditu. Ikasketa prozesuan zehar burutuko diren helburuak honako hauek dira:

1. Ikasgeletan teknologia berrien erabilera sustatzea. Ikastaroa sarean denez, ikasleak teknologiak erabiltzen ohitzea komeni da.
2. Informazio eta komunikazio teknologien (IKT) erabileraren inguruan hausnartzea. Erabilera egokia sustatzea.
3. Interneten aurkitu daitezkeen inguruko arriskuen artean jakinaraztea. Oso mundu zabala da, eta gune seguruetan egoten jakin behar da.
4. Sentimenduak eta enpatia garatzea. Ziberjazarpen hainbat kasu erakutsiz eta biktimaren egoeran jarriz.
5. Cyberbullyingaren inguruko pentsamendu kritikoa garatzea. Zergatik erasotzen da, eta zergatik ez da hori egin behar.
6. Kooperazioa, eta lankidetzan aritzen ikastea. Foroak hori ahalbidetzen du.

3.4. Konpetentziak

Ikastaro honek, konpetentzia batzuk garatzea du helburu. Horretarako, Heziberri 2020 planaren 236/2015 Dekretuan agertzen diren diziplinarreko oinarrizko konpetentziak hartu dira kontuan:

1. Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia. Izan ere idatzizko komunikazioa landuko da, foroetan idazterakoan eta jarduerak burutzerakoan. idatzizko hizkuntzaren erabilpena, errealitatea adieraziz, interpretatu eta ulertuz.
2. Informazioa tratatzeko eta teknologia digitala erabiltzeko konpetentzia. Informazioa biltzeko, lortzeko eta prozesatzeko, gero komunikatzeko gai izateko.
3. Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia. Gizartearen errealitatea ulertzeko, lankidetzan aritzeko, parte hartzeko (foroa), erabakiak hartzeko eta egoera jakin batzuetan nola jardun jakiteko.
4. Ikasten ikasteko konpetentzia. Ikasteko trebetasunak izateko eta autonomia gehiagorekin ikasten jarraitzeko.

5. Norberaren autonomia eta ekimenerako kompetentzia. Jarrera pertsonalez jabetzeko, erantzukizuna, autoestimua, emozioak kontrolatzeko, arriskuak kalkulatzeko eta arazoei aurre egiteko.
6. Zientzia, teknologia eta osasunerako kompetentzia. Gertakariak ulertzeko eta gertakarien ondoren aurreikuspenak egiteko.

3.5. Cyberk@si online ikastaroaren deskribapena

3.5.1. Sarrera

Ikastaro bat sortu da euskaraz Cyberbullyingaren gaia lantzeko Lehen Hezkuntzako Hirugarren zikloko ikasleei bideratuta.

Ikastaroaren izena “Cyberk@si” (<https://cyberkasi.wixsite.com/cyberkasi>) da eta WIX (<https://es.wix.com>) plataformaren bitartez sortu da. Webguneak diseinu anitzak eskaintzen ditu Web orrialde pertsonalizatua egin ahal izateko.

3.5.2. Edukiak

Ikastaroa lau modulu edo ataletan (1. Modulu: Sare Sozialak, 2. Modulu: Identitate Digitala, 3. Modulu: Pribatutasuna, 4. Modulu: Cyberbullyinga) banatzen da. Ikasleek aste bat dute modulu bakoitza egiteko.

Modulu bakoitza hiru ataletan banatzen da: gaiarekiko lehenengo kontaktua, arriskuen azterketa eta konpromisua. Ikastaroko modulu bakoitzean bideo bat agertzen da, hiru edo lau minutukoa da eta gaia azaltzen du. Horrez gain, modulu bakoitza lantzeko materiala sortu da euskaraz, ikasleek e-jarduerak bete ditzaten. Materiala ikasleen jakintasan maila kontuan hartuta egokitu da. Hala ere, hainbat artikulua agertzen dira haien ezagupen mailak areagotzeko. Horrez gain, hainbat material gaztelaniaz edo ingelesez daude. Euskal Hezkuntza sistemara bideratutako ikastaroa izanik, material gehiena euskaraz izatea premiazkoa da, baina, eleaniztasuna bultzatzeko, beste hizkuntzetan lan egitea gomendagarria da.

Modulu guztiek egitura berdina dute. Modulu bakoitzaren hasieran, ikasleek landuko duten gaiaren inguruko deskribapen laburra aurkituko dute eta modulu horren helburu zehatzak. Ondoren, azalpen bideo bat agertuko zaie gai horren ingurukoa eta segituan,

lan egiteko beharko duten derrigorrezko materiala eta material osagarria. Amaieran, burutu beharko dituzten e-jarduerak daude.

Ikasle bakoitzak e-jarduerak burutu behar ditu eta ikasle eta irakaslearentzat sortu den foro pribatuan partekatzen gaituzten zaie. Horrela, ikaskide guztiek ikusi ahal izango dute besteek egindakoa. Jarduerak partekatzeaz gain, gaiarekiko duten iritzia idazteko aukera ematen zaie, lan egin den gaiaren inguruan hausnartzeko. Egia esateko, e-jarduerak guztiak ez dira foroan partekatu behar. Hirugarren moduluan (pribatutasuna), e-jarduerak bat burutuko da “Edpuzzle” (<https://edpuzzle.com>) plataformaren bitartez.

Aipatu den moduan, foroa pribatua da eta “Band” (<http://band.us/home>) aplikazioaren bitartez sar daiteke. Bakarrik onartuta dauden partaideek ikus dezakete taldean agertzen dena. Modu horren bitartez, partaideen (ikasleen) anonimotasuna gordetzen da, kontuan izanda partehartzaileak adingabeak izango direla ezinbestekoa da ezaugarri hau.

Horrez gain, gunea euskaraz denez, ariketak egin ahal izateko beharko diren sinonimoen hiztegien estekak txertatu dira webgunean. Zerbait ez ulertuz gero, lagungarria izateko.

Modulu gutziak bukatu eta gero, atal bat ikus daiteke “Zure txanda!” deiturikoa. Honetan, ikasleek ikastaroan ikasitakoa praktikan jar dezakete jolas interaktibo batzuen bitartez, Lehen Hezkuntzan daudenez, erakargarria egiten zaie bideojokoak erabiltzea. Jolasak cyberbullyinga lantzekoak dira, oro har.

3.5.3. Metodologia

Ikastaroa lau astetan zehar egin beharreko jardueretan oinarritzen da. Oro har, modulu bat astero landuko da. Metodologiari dagokionez, helburua ikasleen partaidetza sustatzea da eta elkarreragina hobetu. Horregatik, bakoitzaren autonomia garatzea da asmoa, jarrera pertsonalez jabetzeko, erantzukizuna izateko, arriskuak kalkulatzeko eta arazoei aurre egiteko.

Proposatutako e-jarduerari dagokienez, Informazio eta Komunikazio Teknologien erabilera eta sentimenduen eta enpatiaren garapenean oinarrituko da. Horretarako, iritzia emateko eta hausnartzekoak diren ariketak lantzeaz gain, IKTak erabiltzeko ariketak proposatuko dira. Lau asteko ikastaroa denez, ikasleen ebaluazioa aztertuko da egiten dituzten testuak eta sortzen dituzten materialak behatuz.

3.5.4. Ebaluazioa

Ebaluazioari dagokionez, ebaluazio jarraia izango da. Ikasle bakoitzak foroan partekatzen dituen iritzi pertsonalak eta jarduerak ebaluatuko dira banan banan. Horrez gain, hirugarren moduluan proposatutako jarduerak ikasle guztien parte hartzea zehaztuko du eta zenbatek egin duten ondo. Ebaluazio irizpidei dagokienez, ikasleen partaidetza aktiboa, sormena, interesa eta komunikatzeko adierazpena kontuan hartuko dira.

Ikastaroa hasterakoan, irakasleak ikasleen zerrenda bat izango du. Bertan, ebaluatuko diren atal guztiak agertuko dira. Hala nola, partaidetza, hizkutz, jarrera, sormena edo inplementazioa. Horrez gain, jarduerak burutzeko denbora kontuan hartuko da eta ikastaroa bukatzerakoan, irakasleak, pertsonalki, ikasle bakoitzari dagokion ebaluazioa edo nota adieraziko dio.

Ikasleen artean, pareko ebaluazioa edo koebaluazioa egongo da. Astero, irakasleak egin beharreko lanak partekatzen dituzten heinean, irakaslea zuzentzen joango da eta ikasleek egindako akatsak partekatuko ditu foro pribatuan, ikasleen izenik aipatu gabe. Horrela, ikaskideek besteen lanak ikusteko aukera izango dute eta egiten dituzten akatsetatik ikasi. Hau gutxi balitz, ikasleen lanak foroan partekatzen direnez (posterak, eskemak etab.) hauek ebaluatzeko aukera izango dute, “Band” ek eskaintzen duen “like” en bitartez.

4. Ondorioak

4.1. Ondorio orokorrak

Hasieratik, lan honek helburu bat zeukan, Cyberbullyingaren gaian sakontzea. Ikastaroa diseinatzen hasi aurretik inkesta egiteak ikasleen inguruko ezagupena ezagutzeko balio izan du, Lehen Hezkuntzako ikasleekin izan den gerturatze hori ahaztu barik. Formulaturako galdetegiak teoriak esandakoarekin konparatu da eta batzuetan teoriak eta errealitateak ez dutela bat egiten frogatu da. Eusko Jaurlaritzak haren “Eskolaren Jazarpen Kasuetan Ikastetxeetan Jardurteko Gidan”n (2015), zehazten du mutilak izaten direla erasoan parte hartzen dutenak eta galdetegiak ordea, kontrakoa erakutsi du. Izan ere, inork ez du zehaztu mutil talde baten eraso jasotzen duenik. Bai neska talde batena, neska mutil talde batena, neska batena eta mutil batena, baina ez mutil talde batena. Gainera, nahiz eta askotan segurtasun moduan eraso jasotzen badute

irakasleei esan behar dietela gomendatu, guztiek zehaztu dute ez dietela ezer esaten irakasleei.

Horrez gain, Cyberbullyingaren ezagutza orokorra dutela ikusi da azken finean. Gehiengoak Cyberbullyingak eta Bullyingak eragin berdina dutela biktiman uste dute eta teorian ikusi denez, Cyberbullyingak kalte gehiago sor dezake. Izan ere, bullyingaren bidez biktima erasoia jasotzen du eskolan edo kalean eta etxera heltzerakoan “arnasa” har dezake. Cyberbullyingaren bidez ordea, Interneten bidezko erasoia denez, edozein unetan gerta daiteke eta horrek eragiten dituen sentimendu tristeak edo depresioa eta autoestimu falta horrek luzaroan iraun dezake (Chaux, 2012; Castelblancok aipatua, 2016).

Inkesta edo galdetegia alde batera utzita, MOOC ikastaroa sortzeak abantailak eskaini ditu. Esate baterako, irakaslearen rolean jartzea eta materiala (bideoak, ariketak, teoria...) sortzea gai konkretu bat lantzeko, edo online den ikastaro bat sortzeko aukera izatea. Online izateak zenbat eta ikasle gehiago parte hartzeko aukera ematen du (hortik dator MOOC ikastaroen izaera masibo hori) eta MOOC ikastaro batean hori gertatzea arrakasta suposatzen dezake. Gainera, ikastaroak Cyberbullyinga lantzeko hainbat kontzeptu lantzen ditu eta hauek Interneten modu seguruan jokatzen laguntzeaz gain, beste hainbat kontzeptu lantzeko aukera eskaintzen du. Hala nola, enpatia eta biktimaren paperean jartzea. Izan ere, atal hau oso garrantzitsua da Cyberbullyingak edo erasoak orokorrean sor ditzakeen sentimenduak ulertzeko eta ez egiteko inoiz horrelakorik. Galdetegian, adibidez, iruzkinetan hitza eman zuten batzuek ez dutela inoiz inor irainduko. Hori horrela bada ere, beti egongo dira eraso egingo duten pertsonak, baina gutxienez hauei aurre egiten eta modu on batean hazten eta zintzoak eta prestutasunez jokatzen jakingo duten pertsonak hezitzen saiatuko gara, behintzat.

4.2. Lanaren mugak

Lan osoa kontuan hartuta, esan daiteke egindako proiektuaren mugen artean interesgarria izango litzatekeela proiektua praktikan jartzea. Izan ere, ikastaroa sortu egin da baina, ikasleekin praktikan jarri gabe. Ikastaroa ikasleek inkestan erantzundakoaren arabera eginda dago, hau da haien ezjakintasun maila jakin eta gero sortu da. Praktikan jarri izanez gero, ikasleen jarrera ikastaroarekiko ikus genezakeen. Frogatu Cyberbullyingarekiko jarrera hobetzeko balio duen eta nolabait ikastetxeetan gerta daitezkeen egoerak saihesteko balio dezakeen. Horrela, ikastaroaren alde onak eta txarrak ikus genitzakeen eta zerbait hobetu behar izanez gero, hobetuko litzateke.

4.3. Etorkizuneko erronka

Sortutako ikastaro honi begira, "Cyberk@asi: Interneten arduraz jokatzeko ikastaroa", esan daiteke berez ikastaroa euskaraz eginda dagoela Euskal Herriko haurrei zuzenduta dagoelako. Hala ere, munduko ikasle gehiagori zuzenduta egoteko eta nolabait mundu osoko ikasleak parte hartu ahal izateko, ikastaroa hizkuntza gehiagotan aurkeztea egokia izango litzateke. Esate baterako, ingelesa.

Horrez gain, ikastaroa Lehen Hezkuntzako ikasleentzat eginda dagoela kontuan hartuta, jarduerak edo ariketak astunegiak ez izateko, egindako bideo elkarreragileak biziagoak izateko, bideoen muntaketan ezagutza gehiago edo laguntza izatea interesgarria izango litzateke. Diseinu eta estilo propioetako jolasak izateko, ez eredu berdina jarraitzen duten jolas motak. Gainera, benetako ikasleekin frogatzea izango litzateke erronka, ikastaroaren ahuleziak ikusteko.

5. Bibliografia

- Aguiar, A. (2016). Facebook: Todo sobre la red social más usada del mundo. *Marketing de contenidos*. 2018-05-03an <https://marketingdecontenidos.com/facebook/> -tik berreskuratua.
- Avilés, J.M. (2002). *Bullying; intimidación y maltrato entre el alumnado*. Bilbao: STEE-EILAS
- Avilés, J.M. (2006). *Bullying: el maltrato entre iguales. Agresores, víctimas y testigos en la escuela*. Salamanca: Amarú Ediciones.
- Arnau, C. (2009). *Skype en la educación*. Barcelona: Universitat Autònoma de Barcelona.
- Castelblanco, D. A., Sánchez, M. T. eta Ruiz, T. (2016). *Las TIC una herramienta didáctica para identificar y mitigar el Cyberbullying*. Bogotá: Fundación Universitaria Los Libertadores.
- Chaux E. (2012). *Educación, convivencia y agresión escolar. (Primera edición)*. Castelblanco, D. A., Sánchez, M. T. eta Ruiz, T.-en barruan (Eds), *Las TIC una herramienta didáctica para identificar y mitigar el Cyberbullying*. Bogotá: Fundación Universitaria Los Libertadores.
- Cormier, D. (2010). *What is a MOOC?*. Universitat Autònoma de Barcelona (Eds), *¿Qué és un curs MOOC?*. 2018-05-08an <http://www.uab.cat/web/estudiar/mooc/ques-un-curs-mooc-1345668146850.html> -tik berreskuratua.
- Collell, J. eta Escudé, C. (2006). El acoso escolar: un enfoque psicopatológico. *Anuario de Psicología Clínica y de la Salud*, 2, 9-14.

- De La Pava, B. (2016). ¿Aún no tienes Snapchat y te da curiosidad?. *BBC Mundo*. 2018-05-03an <http://www.bbc.com/mundo/noticias-36895545> -tik berreskuratua.
- Escudero, F. (2016). Qué es Tumblr, conoce sus características básicas. *About español*. 2018-05-03an <https://www.aboutespanol.com/que-es-tumblr-conoce-sus-7-caracteristicas-basicas-2878804> -tik berreskuratua.
- Eusko Jaurlaritza (2014). Heziberri 2020 Hezkuntza-eredu Pedagogikoaren Markoa. *Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Eusko Jaurlaritza (2015). Eskola Jazarpen Kasuetan Ikastetxeetan Jarduteko Gida. *Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila*. Gasteiz: Eusko Jaurlaritza.
- Flores, J. (2008). *Cyberbullying. Guía rápida*. Garaigordobil, M. (2011) (Ed.). Prevalencia y consecuencias del Cyberbullying: una revisión. *International Journal Of Psychology and Psychological Therapy*. 11(2), 233-254.
- Garaigordobil, M. (2011). Prevalencia y consecuencias del cyberbullying: una revisión. *International Journal of Psychology and Psychological Therapy*, 11(2), 233-254.
- Garaigordobil, M. (2013). *Cyberbullying: Screening de acoso entre Iguales*. Madrid: TEA.
- García, E. (2017). MadLipz, una app para doblar series, películas... 2018-05-03an <https://www.xatakamovil.com/aplicaciones/madlipz-una-app-para-doblar-series-peliculas-y-todo-lo-que-te-ocurra> -tik berreskuratua.
- Kowalski, R., Limber, S., eta Agatston, P. (2012). *Cyberbullying: Bullying in the Digital Age, 2nd edition*. Oxford: Wiley-Blackwell.
- Matesa, D. (2018). Qué es Pinterest, para que sirve y como funciona. *ENO, Expertos Negocios Online*. 2018-05-03an <http://www.expertosnegociosonline.com/que-es-pinterest-para-que-sirve/> -tik berreskuratua.
- Mendoza, E. (2012). Acoso cibernético o cyberbullying: Acoso con la tecnología electrónica. *Pediatría de México* 14(3), 133-146.
- Muñoz, A. (2016). ¿Qué es Reddit y cómo funciona? *Computer Hoy*. 2018-04-29an <https://computerhoy.com/noticias/internet/que-es-reddit-como-funciona-42197> -tik berreskuratua.
- Nieto, N. (2014). Google Hangouts: Qué es y cómo funciona. *Computer Hoy*. 2018-05-03an <https://computerhoy.com/paso-a-paso/internet/tutorial-google-hangouts-que-es-como-funciona-8652> -tik berreskuratua.
- Olweus, D. (1983). Low school achievement and aggressive behaviour in adolescent boys. Collell, J. eta Escudé, C. –ren barruan (Eds.), El acoso escolar: un enfoque psicopatológico. *Anuario de Psicología Clínica y de la Salud*, 2, 9-14.

- Olweus, D. (1998). *Conductas de acoso y amenaza entre escolares*. Madril: Morata.
- Ortega, R., Calmaestra, J. eta Mora-Merchán, J. A. (2007): *Cuestionario Cyberbullying*. Córdoba: Universidad de Córdoba.
- Pascual, J.A. (2017). Qué es y cómo funciona Musical.ly, la app de moda. *Computer Hoy*. 2018-05-03an <https://computerhoy.com/noticias/apps/que-es-como-funciona-musically-app-moda-71129> -tik berreskuratua.
- Pérez, J. eta Gardey, A. (2014). Definición de Twitter. *Definición.de*. 2018-05-03an <https://definicion.de/twitter/> -tik berreskuratua.
- Pérez, J. eta Gardey, A. (2015). Definición de Whatsapp. *Definición.de*. 2018-05-03an <https://definicion.de/whatsapp/> -tik berreskuratua.
- Pérez, J. eta Merino, M. (2010). Definición de Youtube. *Definición.de*. 2018-05-03an <https://definicion.de/youtube/> -tik berreskuratua.
- Pernías, P. (2012). Los MOOC: orígenes, historia y tipos. *Centro de Comunicación y Pedagogía*, 269-270, 2-5
- Ramírez, I. (2016). ¿Qué es Telegram? ¿Es mejor que Whatsapp?. *Página siete*. 2018-05-03an <http://www.paginasiete.bo/miradas/2016/7/4/que-telegram-mejor-whatsapp-101716.html> -tik berreskuratua.
- Rodríguez, S. (2012). Facebook compra Instagram por 1.000 millones de dólares. *El Mundo*. 2018-05-03an <http://www.elmundo.es/elmundo/2012/04/09/navegante/1333991473.html> -tik berreskuratua.
- Sarle, D. (2013). Ask.fm responds to Cyberbullying allegations. *Arctic startup*. 2018-05-03an <https://archive.is/20130816225007/http://www.arcticstartup.com/2013/05/13/ask-fm-responds-to-cyberbullying-allegations#selection-143.0-143.44> -tik berreskuratua.